



**Mondragon
Unibertsitatea**

Humanitate eta Hezkuntza
Zientzien Fakultatea

**Sexu-jazarpenari,
sexuan/generoan oinarritutako jazarpenari
eta bestelako indarkeria matxistei
aurre egiteko protokoloa**



a u r k i

orria

01. PRINTZIOEN DEKLARAZIOA**4****02. EZARPEN-EREMUAK****5****03. PROTOKOLOAK ARAUTZEN DITUEN JOERAK****6****04. ZER PREBENTZIO-NEURRI HARTUKO DIREN****7****05. NOR ARDURATUKO DA PROTOKOLOA KUDEATZEAZ?****8****06. NORK SALATU DITZAKE JAZARPEN ETA/EDO ERASO EGOERAK?****8****07. PROZEDURAREN BERMEAK****9****08. PROZEDURAK****10****09. ERANSKINAK****14****b i d e a**



PRINTZPIOEN DEKLARAZIOA

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak (HUHEZI) ez du inolako indarkeria motarik onartzen, eta, protokolo honen bidez, konpromisoa hartzen du jazarpen-eta indarkeria-jarreraren aurrean beharrezkoak diren neurriak hartzeko; era berean, horren inguruan sor litezkeen kasuak ebazteko eta haien berri emateko konpromisoa ere hartzen du. Modu horretara, eta informazioa, sentsibilizazioa, prestakuntza eta detekzioa baliatuz, indarkeria mota hori prebenituko du, berdintasuneko eta justizia sozialeko gaia baita, zalantzarik gabe.

Gizarte-erantzukizuneko balioak dira gure Fakultatearen ezaugarria, eta, horrekin bat eginez, pertsonen parte-hartzea eta garapena sustatzen ditugu, gizarte justuago, solidarioago eta parekideago bat lortzeko.

Hori dela eta, ezinbestekoa da Fakultatea osatzen duten pertsonen jazarpenik eta indarkeriarik gabeko giroa bermatzea lanerako nahiz ikasketetarako, gure gizarte-balioekin bat etorritik betiere.

Fakultatean, non pertsona desberdinak bizi baitira elkarrekin eta harreman ugari sortzen baitira langile eta ikasleen artean, berdintasunean oinarritutako harremanak sustatu beharra dago. Protokolo honen ardatzean dago berdintasunaren gaineko interpretazio-esparru feminista, eta, haren arabera, emakumei eta patriarkatuaren arabera normatiboak ez diren beste subjektu batzuei testuinguru anitz eta ugari eragiten dieten indarkeriek jatorri sozial jakin bat dute. Unibertsitatea da testuinguru horietako bat. Indarkeria eta jazarpen sexuala, bai eta sexuan, sexu-eta genero-identitatean, genero-adierazpenean edo sexu-orientazioan oinarritutako indarkeria eta jazarpena ere, egiturazko arazo dira, eta, beraz, guztioi dagokigu horri konponbidea aurkitzea.

Fakultate honek erantzukizun hirukoitza dauka jazarpenaren aurrean: lehenengo eta behin, unibertsitateko komunitatea osatzen duten pertsonen konpromisoa daukalako; bigarrenik, gure gain dagoelako Fakultatea espazio segu-

ria izateko erantzukizuna eta ildo horretan jazarpen mota guztiak prebenitu, detektatu eta haien aurka egin behar dugulako; eta, hirugarrenik, Fakultateak erantzukizuna daukalako gizartearen aurrean, giza prestakuntzan eta prestakuntza profesionalean balioak txertatzeko balioko duen espazio bat osatzen eta sortzen duen heinean.

Erantzukizun eta konpromiso horiek kontuan hartuta, Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak parte-hartze prozesu bat¹ abiarazi zuen 2018an ikasle eta langileen artean. Onlineko galdetegi baten eta zenbait entzute-talderen bidez, gaiaren inguruko ikuspegia azaldu, eta ekarpenak eta iradokizunak egin ziren. Horiek guztiak kontuan hartu dira jarraian aurkezten dizuegun protokoloan.

1 1. eranskinean kontsultatu daiteke prozesua.

EZARPEN-EREMUAK



- Campusetan, ikasketekin lotuta dauden jarduerak gauzatzen diren espazioetan, Unibertsitateak antolatzen/babesten dituen jardueretan.
- Espazio fisiko eta/edo birtualetan.
- Langileak, ikasleak, fakultatearekin lan-harremana duten kanpo-erakundeak eta bisitariak.

Protokolo hau Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko (HUHEZI) campusetako espazio guztietan aplikatuko da, bai eta unibertsitatekanpoko espazioetan ere, ikasketak direla-eta ikasleek haietan jardueraren bat gauzatu behar duten kasuetan (praktikak, ikasketa-bukaerako lana, etab.). Era berean, campusetatik kanpoko espazioetan ere aplikatuko da, espazio horietan Unibertsitateak antolatu/babesturiko jarduerak garatzen direnean.

Horrez gain, protokolo honetan zehazturikoa bete behar dute Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatearekin (HUHEZI) lan-harremana duten pertsona guztiek, bai eta Fakultateko bestelako zerbitzuetako kideek ere. Era berean, protokoloan jasotzen dena nahitaez bete beharko dute Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatearekin (HUHEZI) lan-harremana duten kanpoko erakundeek ere, bai eta fisikoki nahiz birtualki fakultatea bisitatzen dutenek ere.

Hurrengo puntuan, protokoloan jazarpenzat hartzen diren jokabideak zehaztu dira, betiere jokabide horiek Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatearekin (HUHEZI) lotutako espazioetan gertatzen direnean, bai fisikoki, bai birtualki.



PROKOLAK ARAZEN DITUEN JOKAERAK²

- 2 Jazarpenen aurkako Batzordearen egitekoa da jazarpen edo erasoen larritasun-maila zehaztea, egoera eta kasu zehatzaren arabera. 3. eranskinean jasota ez dauden jazarpen-adierazpenak kontuan hartu ahalko dira, Batzordeak egoki baderitzo.

1

LGTBifobiak eragindako jazarpena: euren burua jaiotze-unean esleitu zitzaizen generoarekin identifikatzen ez duten pertsonen erasotzean gertatzen da, baita genero edo/eta sexu bereko pertsonenganako erakarpina (emozionala, erromantikoa edo sexuala) sentitzen edota genero-adierazpen ez-normatiboa erakusten dutenei jazartzean ere. Etsai-giroa, larderiazkoa edo iraingarria sortzea du helburu, normaltasunaren urraketa gisa ulertzen dena zigortzeko edota pertsonaren deserosotasuna sortzeko asmoz.

Sexuan/generoan oinarritutako jazarpena: pertsona jazarriarentzat etsai-giroa, larderiazkoa edo iraingarria sortzea helburu duen ekintza, emakumezko izatearen eta gizonzko izatearen ideia tradizionala indartzea helburu duena. Sexu-/genero-sistema bitarra zalan-tzan jartzea eta sistema hori hausten duten rolak bereganatzea zigortzen dira.

2

3

Sexu-jazarpena: pertsona jazarriarentzat etsai-giroa, larderiazkoa edo iraingarria sortzea helburu duten sexu-izaerako ekintzak.

LGTBifobiak eragindako eraso: beste pertsona baten aurkako indarkeria-ekintza, fisikoa eta/edo hitzekoa. Eraso jasan duen pertsonak bere burua jaiotze-unean esleitu zitzaion generoarekin ez identifikatzeagatik, genero-adierazpen ez-normatiboa erakusteagatik edo genero eta/edo sexu bereko pertsonenganako erakarpina (emozionala, erromantikoa edo sexuala) sentitzeagatik gertatzen da.

4

5

Sexuan/generoan oinarritutako eraso: indarkeria-ekintza, fisikoa eta/edo hitzekoa, eraso jasan duen pertsonaren sexuan/generoan oinarritutakoa. Erasoaren helburua, besteak beste, emakume izatearen eta gizon izatearen ideia tradizionala indartzea da.

Sexu-eraso: sexu-izaerako ekintza, fisikoa nahiz hitzekoa, eraso jasan duen pertsonaren borondatea bortxatuz gauzatzen dena.

6

ZER PREBENTZIO-NEURRI HARTUKO DIREN



SENTSIBILIZAZIOA

Behin protokoloa onartuta, Fakultateak zirkular bat igorri eta webgunera igoko du.

Protokoloa onartzen denean, posta elektronikoko bidez bidaliko zaie Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea (HUHEZI) osatzen duten pertsona guztiei, eta aurkezpen-saio bat ere egingo da. Informazio hori berriro igorriko da, birziklatze-prozesu gisa, prestakuntza-planetan jasotzen den aldizkakotasunarekin.

Onartzen den protokoloa Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko (HUHEZI) kide guztiei helaraziko zaie, eta harrera-planean ere txertatuko da.

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko (HUHEZI) kide izan ez arren Fakultatearekin lan-harremana duten pertsona eta erakundeei ere emango zaie protokoloaren berri (praktikak egiten diren erakundeak, kanpo-zerbitzuak ematen dituztenak, etab.).

KONTZIENTZIAZIOA

Prestakuntza orokorra emango zaie Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea (HUHEZI) osatzen duten langile eta ikasle guztiei.

Sexu Jazarpenen Kontrako Batzordea osatzen duten kideek prestakuntza berezitua jasoko dute.

Aldizka-aldizka, gai honen prebentzioa sustatzeko ekimenak antolatuko dira.

Jokabide Egokien Kodea garatuko da.

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEAREN (HUHEZI) KUDEAKETA- EREDUA

Laneko giroari buruz langileek bete behar duten galdetegian txertatuko da gaia. Kalitateari buruz ikasleek bete behar duten galdetegian ere txertatuko da.

Urtean behin, txosten bat aurkeztuko da detektatu eta salatu diren kasuen inguruko informazio gardenarekin eta kasu horiei eman zaizkien konponbideekin.



NOR ARDURATUKO DA PROTOKOLOA KUDEATZEAZ?

Sexu-jazarpeneren kontrako batzorde bat arduratuko da protokoloa kudeatzeaz. Batzorde horretan, lau ordezkari egongo dira: Dekanatzako, Berdintasun Taldeko eta arlo akademikoko kide bana, eta komunikazio-arduraduna. Fakultate guztiak izango du talde horren osaeraren berri.

Batzordearen egitekoa honako hau izango da: protokoloan jasotako kasuei dagozkien kexa eta salaketak kudeatzea, haien inguruko ikerketa egitea, konponbide-proposamenak jasotzen dituen txosten bat idaztea, eta hori guztia organo erabaki-hartzaileari igortzea.

Batzordeak ez du iraupen zehatzik izango, eta dagokion organoan erabakiko da zer ordezkari parte hartuko duten.

Batzordea urtean birritan bilduko da, ohiko bilkuran, baita beharrezkoa den beste kasu guztietan ere, ezohiko deialdi bidez.



NORK SALATU DITZAKE JAZARPEN- ETA ERASO-EGOERAK?

Protokoloan jasotako indarkeria motaren bat jasan duen edonork.

Ikasleen edo ikasle-taldearen ordezkariak.

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko (HUHEZI) langileen ordezkariak, eta Fakultateko langileek parte-hartzen duten taldeetako ordezkari, kolaboratzaile eta hornitzaileak.

Kasuren baten berri izan duen edonork.

PROZEDURAREN BERMEAK



KONFIDENTZIALTASUNA ETA ZUHURTZIA

Prozeduran parte hartzen duten pertsonen nahitaez errespetatu behar dute alde guztiek intimitatea eta konfidentzialtasuna zaintzeko duten eskubidea, eta, horretarako, une oro babestu behar dira haiek identifikatzeko erabiltzen diren datuak.

Edozein kasutan, konfidentzialtasuna ez da eragozpena izango prozesuan erantzukizunak dituzten pertsonen euren egitekoak gauzatu ahal izateko behar duten informazioa eskuratzeko.

PROFESIONALTASUNA ETA ARDURA

Bai ikerketa, bai ikerketaren ondoriozko ebazpena profesionaltasunez, arduraz eta justifikazio gabeko berandutzerik gabe gauzatu behar dira, prozedura ahalik eta denbora-tarte laburrenean osatzeko.

PERTSONEKIKO KONPROMISOA

Prozesu guztian zehar egingo da parte hartzen duten pertsona guztien ongizate orokorraren alde, eta, konpromiso horri jarraituz, ez zaie inolako tratu kaltegarrikerik eragingo. Konpromiso hori Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea (HUHEZI) osatzen duten pertsona guztiei dagokie. Prozesuan parte hartzen duen pertsona orok fede onez parte hartuko du.

BIKTIMIZAZIO BIKOITZA SAIHESTEA

Protokoloa aktibatuz batera abian jartzen den prozesu guztian zehar laguntza eta babesa emango zaio kexa edo salaketa aurkeztu duen pertsonari, eta une oro saihestuko dira kalte gehigarriak eragin ditzaketen egoerak edota bizitakoaren ondorioak areagotu ditzaketenak.

NEURRI ZUZENTZAILEAK

Fakultateari dagozkion eskumenekin bat etorritik, jazarpena edo eraso jasan duten pertsonen urratu zaizkien eskubideak konpontzeko neurriak aplikatuko dira; era berean, eskura dauden berme-neurri guztiak jarriko dira abian, jazarpen- edo eraso-egoera berriro gerta ez dadin.

ERREPRESALIAK DEBEKATZEA

Behar diren berme-neurriak ezarriko dira kexaren bat aurkeztu edota salaketaren bat jarri dutenek, prozeduraren parte direnek edo dagokion ikerketan lekuko gisa jarduten dutenek euren garapen profesional zein akademikoa kolokan jar lezakeen errepresaliarik jasan ez dezaten.



PROZEDURA

KASUEI ERANTZUNA EMATEA

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko (HUHEZI) Sexu Jazarpenen Kontrako Batzordeak jasoko ditu kexak edo salaketak, horretarako berariaz sortu den helbide elektronikoaren bidez (jazarpena.huhezi@mondragon.edu), batik bat. Batzordeko kide den edozeinek kudeatuko du helbide hori.

Salbuespen gisa, ahoz ere eman ahalko da kasuen berri; berriz, egiaztapena idatziz jasota, prozesuaren tramitazioa abiarazi aurretik.

Ez da kexa edo salaketa anonimorik onartuko, inola ere ez.

Hirugarren batek kasuren baten berri ematen duenean, ez da protokoloa aktibatuko jazarpena edo eraso jasan duen pertsonaren baimen idatzia lortu arte. Horretarako, Sexu Jazarpenen Kontrako Batzordeko bi lagun pertsona horrekin elkartu, eta euren eskuetan dituzten datuak azalduko dizkiote.

Jazarpena edo eraso jasan duen pertsonak protokoloa aktibatzerik nahi ez badu, erabakia errespetatu eta, era berean, laguntza eskainiko zaio; inguruan eskura dituen baliabideei buruzko informazioa eman, eta kasuari jarraipena egingo zaio.

Kasu horretan, jarduteko modu egokiena zein den aztertuko du Sexu Jazarpenen Kontrako Batzordeak, baldin eta ekintza larritzat jotzen badu edota hirugarren batzuk kalte zeko arriskua badago.

KEKAREN EDO SALAKETAREN HASIERAKO BALORAZIOA

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko (HUHEZI) Sexu Jazarpenen Kontrako Batzordeak baloratu du ea aurkeztu den kexa edo salaketa protokoloan jasota daudenen artean dagoen ala ez.

- Hala izanez gero, protokoloa aktibatu, eta prozedura-tramitazioa abiaraziko da.
- Protokolo honetan jasota ez dagoen adierazpenen bategin lotua badago gertaera, horren berri eman duen pertsonari jakinaraziko zaio zergatik ezin zaion kasuari erantzunik eman batzordean; halaber, batzordeak kasua itxiko du, edota dagokion arreta emateko eskumena duen instantziara bideratuko.

Prozesu hori 7 eguneko epean gauzatuko da, gehienez.

KAUTELA-NEURRIAK

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko (HUHEZI) Sexu Jazarpenen Kontrako Batzordeak beharrezkotzat jotzen gero, kasu batean parte hartzen duten alderdiei prozedurak dirauen artean, kautela-neurriak ezartzea proposatuko du.

Neurri horiek Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko (HUHEZI) barne-araudiaren arabera aplikatuko dira.

PROZEDURAREN HASIERA

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko (HUHEZI) Sexu Jazarpenen Kontrako Batzordeko bi kide elkartuko dira, batetik, kexa edo salaketa eragin duen gertaeraren egilearekin, eta, bestetik, gertaera jasan duen pertsonarekin, kasu zehatz horri buruz duten informazioa kontrastatu eta osatu ahal izateko. Kide bakoitza bere kabuz bilduko da haiekin.

Beharrezkotzat joz gero, gaiari buruz informazio baliotsua eman dezaketen pertsonak ere elkarriketatu ahalko dira, zer gertatu den hobeto jakiteko.

KEXA

Kexa bat aurkezten denean, eta kontraste-prozesuan egiaztatzen bada kexa horrek baduela egia-zantzurik, kexa jarri zaion pertsonarekin bilera bat egin, eta, kasua azaldu ostean, jakinaraziko zaio zer ondorio izango dituen aurretzean jarrera hori errepikatzeak.

Nahi izanez gero, kexa aurkeztu duen pertsonak ere parte hartu ahalko du bilera horretan; kexa jarri zaion pertsonak, era berean, egokitzen jotzen dituen azalpenak eman ahalko ditu.

Behin hori eginda, kasua itxiztat joko da, non eta prozesuko partaideetakoren bat emaitzarekin ados egon ez eta ez duen erabakitzen salaketa-prozesua abiaraztea.

SALAKETA

Salaketa-kasuetan, dagozkion kontraste- eta ikerketa-lanak egin ostean, Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko (HUHEZI) Sexu Jazarpenen Kontrako Batzordeak txosten bat egingo du; kasuari buruzko informazioa jasoko du txosten horretan, eta, ahal dela, saihestu egingo ditu behar-beharrezkoak ez diren datu pertsonalak. Halaber, txostenak ebazpen-proposamen bat ere bilduko du, dagozkion organo erabaki-hartzaileak balora dezan.

Aurkeztutako proposamenen inguruan batzordeak adostasunik lortzen ez badu, txostenean jasoko dira, baita ere, desadostasuna eragin duten arazoak eta hori konpontzeko aurkeztu diren proposamenak.

Neurri hauek proposatu ahal izango dira:

- Kasua ixtea, inolako zehapen-neurririk aplikatu gabe, gertaerak zalantzarik gabe frogatu ezin izan direnean.

- Salaketa jarri zaion pertsonari zehapen-neurriak ezarzteza, Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko (HUHEZI) barne-araudiaren arabera.
- Salaketa jartzen duenarentzat neurri konpontzaileak ezarzteza.
- Ikerketen ondorioz ebatziko balitz jazarpen-egoerarik egon ez eta, horrez gain, salaketa jarri zaion pertsonari lan-arloan inolako justifikaziorik gabe kalteak eragiteko asmoa egon dela, diziplina-espediente bat irekitzeko proposamena egin ahalko du batzordeak.

Prozesuak 30 egun iraungo du, gehienez.

ORGANO ERABAKI-HARTZAILEAREN EBAZPENA

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko (HUHEZI) ikasle edo langileak tartean daudenean, Zuzendaritza Kontseilua arduratuko da kasua ebazteaz.

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko (HUHEZI) bazkideak tartean daudenean, Kontseilu Errektorea arduratuko da kasua ebazteaz.

Hartu beharreko neurriak Sexu Jazarpenen Kontrako Batzordeak aurkeztutako txostenaren eta Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko (HUHEZI) barne-araudiaren arabera erabakiko dira.

Epai-prozesu paralelo bat dagoen kasuetan, prozesuaren ondorioz ezarriko liratekeen zehapen-neurriak ez dira aplikatuko gai horri buruzko epaia eduki arte.


PROZEDURA IXTEA

Organo erabaki-hartzaileak kasua ebatzi ondoren, erabakiaren berri emango zaie, idatziz, bai salaketa jarri duenari, bai salatuari.

Prozedura ixtean, komunitatean zein hedabideetan egin den komunikazio-kudeaketa balioetsiko da.

Edozein modutan, detektatutako eta ebatzitako kasuak biltzen dituen urteko txostenean jasoko da.

**Epe maximoa:
7 egun**



**Epe maximoa:
7 egun**

KEXA/SALAKETA ONARTZEA ETA PROZEDURAREN TRAMITAZIOARI HASIERA EMATEA

KEXA

SALAKETA

Egiaztatu:

- Nork aurkeztu duen kexa.
- Noren kontra aurkeztu den kexa.
- Egoki irizten diren pertsonekin.

Egiaztatu:

- Nork aurkeztu duen salaketa.
- Noren kontra aurkeztu den salaketa.
- Egoki irizten diren pertsonekin.

Egiazkotasun-zantzuak
caudela uste denean

TXOSTENA EGITEA ETA NEURRIAK PROPOSATZEA

- Kasua itxitzat jotzea.
- Zehapen-neurriak.
- Neurri zuzentzaileak.

Kexa jarri zaion pertsonarekin harremanetan jarri, kexaren berri eman, eta, egia izatekotan, jokabidea berriz errepikatzeak izango lituzkeen ondorioen gaineko informazioa azaldu.

ORGANO ERABAKITZAILEARI IGORTZEA

Ikasleak edo langileak

Bazkideak

KONTSEILU ERREKTOREA

KASUA ITXITZAT JOTZEA EDO, ALDERDIREN BAT PROPOSATURIKO EBAZPENAREKIN ADOS EZ BALEGO, SALAKETA-PROZEDURA IREKITZEA

ZUZENDARITZA BATZORDEA

- Kexa aurkeztu duen pertsona bertan egon daiteke, hala nahi izanez gero.
- Kexa jarri zaion pertsonak egokitze jotzen dituen azalpenak eman ditzake.



ERANSKINAK

9.1 PROTOKOLOA SORTZEKO PROZESUA

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak (HUHEZI) hala eskatuta, 2018ko irailean ekin zitzaion sexu-jazarpenari, sexuan oinarritutako jazarpenari eta bestelako indarkeria matxistei aurre egiteko protokoloa prestatzeko lanari.

2018ko irailean eta urrian, unibertsitateko protokoloa eguneratuen dokumentu-analisia egin zen, hurrengo fasean kontuan hartzekoak izango ziren abiapuntu-ideiak sortzeko asmoz. Dokumentuen analisi horretan, unibertsitate-ingurunean jasotako indarkeria-formak, sexu-jazarpenen eta jazarpen sexisten inguruko prebentzio eta esku-hartze estrategiak, ordura arteko jardunbide egokiak eta ideia berri-tzaileak sortzeko hobekuntza posibleak jaso ziren.

Horren ostean, onlineko galdetegi bat prestatu, eta, 2018ko urria eta azaroa bitartean, 15 egunez Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko (HUHEZI) langile eta ikasleen eskura jarri zen, erantzun zezaten.

Onlineko galdetegiaren bidez lortutako emaitzen arabera, entzute-taldeak diseinatu ziren. Horri esker, jasotako informazioa zabaldu eta sakontzeko aukera sortu zen, eta ikasle eta langileek egindako proposamenak jaso ziren. Talde horiek 2019ko urtarrila eta martxoaren bitartean egon ziren martxan.

Onlineko galdetegiaren eta entzute-taldearen bitartez lortutako informazioarekin, Fakultatearen egoera-diagnosia egin zen, eta, hain zuzen, diagnostiko horretatik abiatuta egin zen hemen aurkezten dugun protokoloa.

9.2 DEFINIZIOAK

SEXUAK ERAGINDAKO INDARKERIA esaten diogu emakumezkoek eta gizonezkoek gizartean betetzen dituzten rol tradizionalak indartzea helburu duen indarkeriari. **LGTBIFOBIA**, bestalde, ez-onartzearen eta genero-identi-

tatearen nahiz sexu-orientazioaren askatasunaren kontra jardutean oinarritutako indarkeria da; hau da, pertsonen beren jaiotze-unean esleitu zitzairen genero-identitatea ez den beste bat adieraztea edota genero eta/edo sexu bereko pertsonenganako erakarpena (emozionala, erromantikoa edo sexuala) sentitzea onartu ez, eta horren aurka egitea.

LGTBifobiaz dihardugunean, ezaugarri jakin batzuen diskriminazioaz eta zapalkuntzaz ari gara, oro har, baina ezauzgarri espezifikokoak ere baditu. Hauek dira ezagunenak:

> **Transfobia:** euren burua jaiotze-unean kanpoaldeko genitalen arabera esleitu zitzairen generoarekin identifikatzen ez duten pertsonak, generoaren adierazpen normatiboa erakusten ez duten pertsonak edota biologiararen arabera sexua ez den beste sexu bat duten pertsonak (transgeneroak, intergeneroak, transexualak) ez onartzearen eta pertsona horien kontrako jarreraren oinarritutako indarkeria.

> **Homofobia:** pertsona batek genero eta/edo sexu bereko pertsonenganako erakarpena (emozionala, erromantikoa edo sexuala) sentitzea ez onartzearen eta horren aurkako jarreraren oinarritutako indarkeria. Terminoak sexu-orientazio bat baino gehiago barne hartzen dituen arren (lesbianak, gayak, bisexualak, pansexualak, etab.), sarritan, gayak aipatzeko erabiltzen da eskusiboki, gainerako orientazioak kanpoan utziz; horregatik aipatzen ditugu, baita ere, lesbofobia eta bifobia terminoak.

> **Lesbofobia:** lesbianen aurka gauzatzen den indarkeria, bai euren sexu-orientazioagatik, bai emakume izateagatik. Indarkeria homofobo eta sexista da, eta, beraz, emakumeak bi aldiz bihurtzen dira ikusezin eta biktima.

> **Bifobia:** badira sexu/genero batek baino gehiagok erakartzen dituen pertsonak; erakarpen hori emozionala, erromantikoa edo sexuala izan daiteke. Indarkeria mota honek ez du halakorik onartzen; horregatik gauzatzen da bifobia,

erakarpena sexu/genero bakar batera mugatu behar dela ulertzen delako.

9.3 JAZARPENAREN ADIBIDEAK


Indarkeria matxista giza eskubideen urratze larri bat da, eta emakumeei eta LGBTIQ+ pertsoneri eragiten die, batik bat; hau da, araua hausten duten pertsonen kontra gauzatzen da indarkeria matxista. Portaera kontrolatzea eta bostere-harremanak mantentzea da helburua, eta pertsonen askatasuna murriztea.

Indarkeria mota hau jokabide ageriko eta/edo esplizituen bidez ez, baizik eta jokabide sotil eta/edo ikusezinen bidez adierazten da gehienetan, eta horrek zaildu egiten du horren mende daudenen gertatzen ari zaien hori detektatzea. Askotan, halako jokabideak normaltzat jotzen dira

inguruan, eta horrek egoera jasaten dutenen bizimoduari eragiten zaion inpaktu larria gutxiestea dakar askotan.

Sexu-jazarpena, sexuan oinarritutako jazarpena eta LGBTI-fobiak eragindako jazarpena indarkeria mota horren adierazpenetako batzuk baino ez dira, eta, halakoak ulertzeko eta modu eraginkor eta arduratsuan esku hartu ahal izateko, nahitaezkoa da jazarpenaren sustraiak zein diren jakitea. Horietako batzuk irudi honetan daude islatuta:³

Emakundeak sexu-jazarpentzat edota sexuan oinarritutako jazarpentzat har daitezkeen zenbait egoera jaso ditu «Lanean sexu-jazarpenari eta sexuan oinarritutako jazarpenari aurre egiteko protokoloa» (2016) txostenean; hala ere, badira zerrendan jaso gabe geratu diren hamaika egoera, eta, larritasun-mailaren, egoeraren eta kasuaren arabera, kontuan hartu beharko dira, batzordeak egoki iritzi gero.



3 Grafikaren ideia: Amnistia Intenazionalak. Grafikaren itzulpena/egokitzapena: Zumaiaiko Asanblada feminista.

SEXU-JAZARPENA

- Biktimak sexu-mesederen bat egin behar izatea enplegua edo enpleguaren kondizioetako bat lortzeko, edo enpleguari eusteko, nahiz eta baldintzapen horren mehatxu esplizitu edo inpliziturik gauzatu ez (sexu-xantaia).
- Nahi ez den kontaktu fisikoa (ukituak, igurtziak, besarkadak, laztanak, atximur egitea...).
- Nahi ez diren telefono-deiak, gutunak, mezuak, argazkiak edota bestelakoak bidaltzea, betiere sexu-izaera-koak.
- Sexu-harremanak izateko presioa egitea edo horretara hertsatzea.
- Sexu-proposamenei edo -eskaerei uko egin eta gero errepresaliekkin mehatxatzea.
- Zigor Kodean jasotako edozein sexu-eraso egitea.
- Errepresaliak hartzea jazarpenak salatzen dituzten edo jazarpenen ikerketetan parte hartzen, laguntzen edo lekukotasuna ematen duten lagunen kontra, bai eta horrelako jokabideen aurka egiten dutenen kontra ere, euren buruaz ari direla edo beste bati buruz ari direla.
- Keinu, soinu edo mugimendu lizunak egitea.
- Bizitza sexualari buruzko galderak egitea.
- Hitzordu bat behin eta berriro eskatzea dagoeneko ezezkoa eman denean.
- Behin eta berriro gehiegi hurbiltzea.
- Kontaktu fisikoa lortzearren pertsona bati mugitzea eragozte.
- Zokoratzea, edo pertsona batekin bakarka gelditzea eragitea, horretarako inolako beharrik gabe.
- Sexu-proposamenak egitea.
- Pertsona baten itxura fisikoari edo irudiari buruzko zein haren sexu-izaerari edo joerari buruzko komentarioak edo balorazioak egitea.
- Pertsona baten bizitza sexualari buruzko zurrumuruak, konnotazio sexuala dutenak, zabaltzea.
- Pertsonak modu klandestinoan edo ezkutuan zelatatzea leku pribatuetan, hala nola komunitetan edo alda-geletan.
- Lanean eta/edo laneko ekipamenduetan irudiak erabiltzea (sexuaren ikuspegitik iraingarriak, iradokitzaileak edo pornografikoak diren edukiak bistaratzea).

- Izaera sexualeko txistek edo lausenguak behin eta berriro egitea.
- Norberaren trebetasun edo gaitasun sexualei buruz behin eta berriz hitz egitea.
- Beste pertsona baten gorputzari lizunki begiratzea.

SEXUAN/GENEROAN OINARRITUTAKO JAZARPENA

- Modu publikoan nahiz pribatuan sexua/generoa dela-eta etengabe gutxiestea pertsona bat edo haren lana, gaitasuna, kompetentzia teknikoak, trebetasunak...
- Adierazpen sexistak eta iraingarriak erabiltzea gaitasunak, kompetentziak edo trebetasunak gutxiesteko (adibidez: «emakumezkoa izan behar», «harrikoa egiteko bakarrik balio duzu», «emakume, adi zure zereginei»).
- Egindako ekarpenak, iruzkinak edo ekintzak pertsonaren sexuaren/generoaren arabera alboratzea (baztertzea, aintzat ez hartzea).
- Hierarkikoki gorago daudenen aginduei edo jarraibideei kasurik ez egitea gorago dauden horiek emakumezkoak direnean.
- Pertsona bati bere gaitasunari dagokion lanpostua edo erantzukizuna baino beheagoko bat ematea sexua/generoa dela-eta.
- Lana zapuztea edo behar bezala egiteko bideak oztopatzea, nahita (informazioa, dokumentazioa, ekipamendua...).
- Pertsonak adingabeak balira bezala, mendekotasun-egoeran baleude bezala edo maila intelektual baxua balute bezala tratatzea (hitz egiteko moduan, tratuan...) sexua/generoa dela-eta.
- Agindu iraingarriak ematea pertsonaren sexua/generoa dela-eta.
- Muturreko eta etengabeko zaintza dakarten jarrerak.
- Tradizionalki beste sexuko/generoko pertsonak egin izan dituzten lanak hartzeagatik pertsonak barrengarri uztea.
- Pertsona bati dagozkion baimenak ukatzea modu arbitrarioan eta sexua/generoa dela-eta.
- Umore sexista erabiltzea.
- Diskriminazioak egitea sexua/generoa dela-eta.
- Indar fisikoa erabiltzea sexu bat beste bati gailentzen zaiola erakusteko.

Emakunderen irizpideen arabera, inguruabar LARRIGARRIAK dira:

- Nagusitasun hierarkikoaren egoeraz abusatzea edo jazarpena egiten duen pertsonak biktimaren lan-baldintzen edo lan-harremanaren beraren gaineko erabakimena izatea.
- Portaera laidogarriak izatea behin eta berriz biktimak konponbiderako prozedurak martxan jarri eta gero.
- Azpikeria, hau da, bitarteko, modu edo jokamolde jakin batzuk erabiltzea erasotzailea onik aterako dela bermatzeko.
- Jazarleak kasu batean baino gehiagotan egitea sexu-jazarpena eta/edo sexuan/generoan oinarritutako jazarpena.
- Bi biktima edo gehiago izatea.
- Biktimak desgaitasun fisiko, psikiko edo sentsorialen bat izatea.
- Biktimak lehenagotik egiaztatutako arazo medikoren bat izatea.
- Egiaztatzea jazarleak biktima, lekukoak edota aholkulari konfidentzialak beldurtu nahi izan dituela edo haien kontrako errepresaliak hartu dituela.
- Jazarpena langileak hautatzeko edo goragoko postuak emateko prozesuan gertatzea.
- Biktimak, lekukoak edo haien lankideak edo familiakoak presionatzea edo behartzea ikerketa behar bezala egin ez dadin.
- Biktima behin-behineko kontratazioan, bitarteko kontratuarekin, probaldian, bekadun gisa edo praktketan egotea.

9.4 ESPARRU ARAUEMAILEA

NAZIOARTEKO ESPARRU ARAUEMAILEA

- Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala (1948). 2. artikulua: «Gizaki orori dagozkio Adierazpen honetan jasotako eskubide eta askatasunak, eta ez da inor bereiziko arraza, larru-kolorea, sexua, hizkuntza, erlijioa, politikako edo bestelako iritzia, sorterrria edo gizarteko jatorria, maila ekonomikoa, jaiotza edo beste inolako gorabeheragatik». Adierazpen horretan bilduta daude sexuan oinarritutako diskriminaziorik ez izateko, sexu-orientaziorako eta genero-identitaterako eskubideak ere.
- Lanaren Nazioarteko Erakundearen 111. Hitzarmena (1958). 2. artikulua: «Edozein bereizketa, bazterketa

edo lehenespen, baldin eta hori oinarritzen bada arraza, larru-kolore, sexu, erlijio, iritzi politiko, nazio-jatorri edo gizarte-jatorriaren arabera arrazoietan, eta horren ondorena bada enpleguan eta okupazioan berdintasun-aukerak edo -tratua deuseztatu edo aldatzea».

- Emakumearen Aurkako Indarkeria Ezabatzeari buruzko Adierazpena (1967). 2.b. artikulua: «Komunitatearen barruan gauzatutako indarkeria fisiko, sexuala eta psikologikoa, eta, horrekin batera, bortxaketa, sexu-abusua, jazarpena eta laneko, hezkuntzako eta beste leku batzuetako sexu-larleria, emakumeen salerosketa eta derrigortutako prostituzioa». Eta 4.j. artikulua: «Neurri egoki guztiak hartu, hezkuntzaren alorrean bereziki, gizonaren eta emakumearen jokabidearen inguruko gizarte- eta kultura-ereduak aldatzeko, sexuetatik bat bestea baino gutxiago edo gehiago dela uste izanagatik edo gizonen eta emakumeen zeregin estereotipatuengatik izan daitezkeen aurreiritziak eta ohiturazko nahiz bestelako egikerak ezabatzeko».
- Emakumeen Kontrako Diskriminazio Era Guztiak Ezabatzeko Konbentzioa (1979). 11.f. artikulua: «Osasuna babesteko eta lan-baldintzetan segurtasuna bermatzeko eskubidea, bai eta ugalketa-funtzioa zaintzekoa ere».
- Giza Eskubideen Munduko Konferentzia (1993). 2. artikulua emakumeen kontrako indarkeriatzat hartzen du «sexu-jazarpena eta larleria sexuala lanean, hezkuntza-erakundeetan eta bestelako esparruetan».
- Emakumeari buruzko IV. Munduko Konferentzia (1995). 180.c. neurria: «Sexu-jazarpenaren eta beste zirikatzeko era batzuen kontra lantoki guztietan borrokatzeko legeak aldarrikatu eta aplikatzea».
- Nazio Batuen Adierazpena, Sexu Orientazioaren eta Genero Identitatearen ingurukoa (2008). 3. artikulua: «Diskriminazio ezaren printzipioa berresten dugu, zeinaren bidez eskatzen baita giza eskubideak berdintasunez aplikatzea gizaki guztiei, horien sexu-orientazioa edo genero-identitatea edozein dela ere».
- Giza Eskubideen Kontseiluaren 17/19 Ebazpena (2011), sexu-orientazioa eta genero-identitatea dela-eta pertsonen kontra egindako legeak eta diskriminazio-praktikak, eta indarkeria-egintzak. 51tik 53ra bitarteko puntuak, laneko diskriminazioari buruzkoak; eta 58tik 61erako puntuak, hezkuntzako diskriminazioari buruzkoak.

EUROPAKO ARAUDIA

- Europar Batasunaren Oinarritutako Eskubideen Gutuna (2000). 21.1. artikulua: «Debeku da bereizkeria oro, eta bereziki hauek: sexua, arraza, kolorea, herriko zein gizarteko jatorria, ezaugarri genetikoak, hizkuntza, erlijioa zein sinesteak, iritzi politikoak zein beste edozein iritzi, gutxiengo nazional batekoa izatea, ondarea,

jaiotza, ezgaitasuna, adina nahiz sexu-joera direla-eta egindako bereizkeriak».

- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006/54/EE Zuzentaraua, gizonen eta emakumeen artean tratu-berdintasunaren printzipioa aplikatzeko enpleguarekin eta okupazioarekin zerikusia duten gaietan (2006). 2. artikulua sexu-jazarpenera definitzen du, eta 26. artikulua honako hau dio: «Estatu kideek, legeria, hitzarmen kolektibo edo eginera nazionalekin bat etorri, enpresaburuei eta prestakuntza lortzearen gaineko ardura dutenei eskatuko diete neurri eragingarriak hartzea, sexuan oinarritutako bereizkeria-mota guztiak prebenitzeko, eta, bereziki, lan egiten den lekuan nahiz enplegua lortzeko orduan, lanbide-prestakuntzan eta lanbide-aurrerakuntzan gauzatutako jazarpenera eta sexu-jazarpenera».
- Laneko jazarpenari eta indarkeriari buruzko Europako esparru-akordioa (2007). «Akordioaren helburua da lan-arloan larderia-arazoak, sexu-jazarpenera eta indarkeria fisikoa prebenitzea eta, beharrezkoa denean, kudeatzea».
- Europako Kontseiluaren Hitzarmena, emakumeen aurkako indarkeriaren eta etxeko indarkeriaren aurkako borrokari eta prebentzioari buruzkoa (2011).

ESPAINIAKO ESTATUKO ARAUDIA

- Espainiako Konstituzioa (1978). 14. artikulua: «Espainiarrak legearen aurrean berdinak dira, eta ezin da onartu diskriminaziorik sexuagatik (adiera zabalean) edo bestelako baldintza edo egoera pertsonal edo sozialengatik». Eta 35.1. artikulua: «Espainiar guztiak dute lan egiteko betebeharra eta lanerako eskubidea, bai eta lanbidea edo ogibidea askatasunez aukeratzeko, laneko eskalan gora egiteko eta norberaren eta familiaren beharrianak asetzeko adinako ordainsaria jasotzeko eskubidea ere, eta ezingo da diskriminaziorik egin sexu-arrazoiarengatik».
- Azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoa, Zigor Kondeari buruzkoa (1995). 184.1. artikulua: «Norbaitek berarentzat edo beste batentzat sexu-mesedeak eskatzen baditu, laneko, irakaskuntzako edo zerbitzu-eskaintzako harreman jarraitu edo ohikoen eremuan, eta jokabide horrekin biktima jartzen badu larderiako, etsaigoko edo umilazioko egoera objektibo eta larrian, orduan, pertsona horri, sexu-jazarpenaren egile gisa, hiru hilabetetik bostera arteko espetxealdi-zigorra edo sei hilabetetik hamarrera arteko isuna ezarriko zaio». Eta 184.2. artikulua: «Sexu-jazarpenaren errudunak egitatez gauzatu badu, laneko, irakaskuntzako edo hierarkiako nagusitasun-egoeraz baliatuz, edo biktimari, esanbidez edo isilbidez, harreman horien inguruan izan ditzakeen bidezko igurikimenei kalte eragingo diela mehatxueginez, orduan, bost hilabetetik zazpita arteko es-

petxealdi-zigorra edo hamar hilabetetik hamalaura arteko isuna ezarriko zaio».

- Azaroaren 8ko 31/1995 Legea, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzkoa (1995). 14. artikulua: «[...] Babes-eginbeharra betetzeko, enpresaburuak bere zerbitzuplean dauden langileen segurtasuna eta osasuna babestu beharko ditu, lanarekin zerikusia duten alde guztietan. Ondore horietarako, enpresaburuak, bere erantzukizunen esparruan, lan-arriskuak prebenituko ditu, enpresan prebentzio-jarduerak ezarri, eta langileen segurtasuna eta osasuna babesteko behar besteko neurriak hartu; horretarako, aintzat hartuko ditu hurrengo artikuluetan jasotako berezitasunak, lan-arriskuak prebenitzeko planari, arriskuak ebaluatzeari, langileen informazioa, kontsulta zein partaidetza eta prestakuntzari, larrialdietan eta arrisku larri eta hur-hurrekoetan jarduteari eta osasunaren zaintzari dagokienez. Horrez gain, enpresaburuak lan-arriskuak prebenituko ditu, erakunde bat eratuz eta behar besteko tresnen bidez, lege honen IV. kapituluaren ezarritakoaren arabera».
- Abuztuaren 4ko 5/2000 Legegintzako Errege Dekretua, lan-arloko arau-hauste eta zigorrei buruzko legearen testu berritua onartzen duena (2000). 13 bis artikulua: «Enpresa-zuzendaritzaren esku dagoen eremuan gertatzen den jazarpenera, horretarako arrazoia direla arraza edo etnia, erlijioa edo sinesmenak, minusbaliotasuna, adina eta sexu-orientazioa edo sexuagatik jazarpenera, subjektu aktiboa edozein dela ere, eta betiere enpresaburuak ekintza horren berri izan eta neurriak hartu ez badu».
- Martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eraginkorrari buruzkoa (2007). 7.3. artikulua: «Edozein kasutan, bereizkeriatzat joko dira sexu-jazarpenera eta sexuan oinarritutako jazarpenera». 48.1. artikulua: «Enpresek sexu-jazarpenera eta sexuan oinarritutako jazarpenera saihesteko lan-baldintzak sustatu beharko dituzte, eta prozedura bereziak ezarri, horiek prebenitzeko eta halakoak jasan dituztenen kasuan kasuko salaketa eta erreklamazioak bideratzeko. Xede horrekin, langileen ordezkariekin negoziatuta, neurriak ezarri ahal izango dira, hala nola jardunbide egokien kodeak egin eta zabaltzea, informazio-kanpainak gauzatea edo prestakuntza-ekintzak gauzatea». Eta 48.2. artikulua: «Langileen ordezkariak lagundu beharko dute lanean sexu-jazarpenera eta sexuan oinarritutako jazarpenera prebenitzen, horren aurrean langileak sentsibilizatuz eta enpresa-zuzendaritza informatuz eurek ezagutzen dituzten jokabideen eta jarreraren gainean, halakoek sexu-jazarpenera edo sexuan oinarritutako jazarpenera eragin dezaketenean».
- Apirilaren 12ko 4/2007 Lege Organikoa, unibertsitatei buruzko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoa aldatzen duena (2007): 46. artikulua 2. atalaren idazketa berria: «j) Tratu ez-sexista jasotzea».

- Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskapenaren lan-arloko jazarpen- eta indarkeria-jarduerei buruzko 68/2009 Irizpide Teknikoa (2009): «Laneko jazarpen eta tratu txar mota guztiak barne hartzen ditu».
- 1791/2010 Errege Dekretua, unibertsitateko ikasleen estatutua onartzen duena (2010). 4. artikulua: «Unibertsitateko ikasle guztiek, haien jatorria edozein delarik ere, bereizkeria ez jasateko eskubidea dute, jaiotzea, arraza edo etnia-jatorria, sexua, erlijioa, sinesmen edo iritzia, adina, minusbalotasuna, nazionalitatea, gaixotasuna, sexu-orientazioa edo genero-identitatea, ekonomia- eta gizarte-egoera, hizkuntza edo mintzaira, edo kidesun politiko eta sindikala edo itxura, gehiegizko pisua edo obesitatea edo beste edozein ezaugarri edo baldintza pertsonal edo sozial aitzakia harturik, baldintza bakarra izanik arau demokratikoak eta hiritarrekiko errespetuzkoak onartzea, espainiar gizartearen konstituzio-oinarria baitira».
- Urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretua, Langileen Estatutuaren Legearen testu bateratua onartzen duena (2015). 4.2.c: «Espainiako estatu barruan enplegurako bereizkeriarik –zuzenean edo zeharka– ez jasateko eskubidea; enplegatu ondoren, sexuagatik, egoera zibilagatik eta, lege honek zehaztutako mugen barruan, adinagatik bereizkeriarik ez jasateko eskubidea; berdin, gainera, arraza edo etnia jatorriagatik, egoera sozialagatik, erlijio edo politikako ideiegatik, orientazio sexualagatik, sindikatuaren batera afiliatuta egoteagatik edo ez egoteagatik, eta hizkuntzagatik bereizkeriarik ez jasateko eskubidea».

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ARAUDIA

- Euskadiko Autonomia Estatutuari buruzko 3/1979 Lege Organikoa (1979). 9.1. artikulua: «Euskadiko herriarren oinarritzko eskubide eta betebeharrak Konstituzioaren finkatutakoak dira».
- Otsailaren 18ko 4/2005 Legea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa (2005). 43. artikulua: «Delitu modura izan dezakeen tipifikazioa ahaztu gabe, lege honen ondoretarako, jazarpen sexista hau izango da: lanean, nahi ez duen pertsona batekin eta horren sexua dela-eta, hitzez, hitzik gabe edo fisikoki edozein jokabide izatea, horren helburu edo ondorioa izanik pertsona horren duintasunari erasotzea edo kikilduta, etsai, makurrazita, irainduta edo laidoztatua sentiarazteko giroa sortzea. Jokabide horrek sexuarekin zerikusia duenean, jazarpen sexista izango da».
- Ekainaren 28ko 14/2012 Legea, transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzkoa (2012). 18. artikulua: «Euskadiko Hezkuntza Administrazioak bermatuko du, beharrezko diren neurriak hartuta, babes egokia emango diela ikasle, langile eta irakasle transexualei diskriminazio, gi-

zarte-bazterketa eta indarkeria ororen aurka, bai eta jazarpenaren eta erasoaren aurka ere, eskolaren eremuan».

- Euskadiko Autonomia Erkidegoan emakume eta gizonen berdintasunerako VII. Plana onartzen duen Erabakia. (esp.: 2018/00445) (a/20180130) (2018).



HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEKIN FAKULTATEKO (HUHEZI) ARAUDIA

Sexu-/genero-jazarpenaren testuinguruan, honako hauek dira hutsegiteak eta zehapenak:

HUTSEGITEAK

HUTSEGITE ARINAK:

- Adierazpen iradokitzailak eta desatseginak, tankerari edo itxurari buruzko txisteak edo adierazpenak, eta hitzeko abusu lizunak.
- Lanleketan eta laneko tresnetan irudi sexistak jartzea.
- Larritasun-maila bereko edozein.

HUTSEGITE LARRIAK:

- Gonbidapen likitsak edo konprometigarriak.
- Keinu zantarrak.
- Beharrezkoa ez den kontaktu fisikoak, ukitze arinak.
- Sexu/generoaren ikuspegitik pertsonari edo haren lanari buruzko deskalifikazio publikoa egitea.
- Itxura fisikoari, ideologiari edo sexu-aukerari buruzko adierazpen isekariak.
- Agindu kontraesankorrak eta, ondorioz, aldi berean egiteko ezinezkoak ematea.
- Agindu isekariak ematea.
- Muturreko zaintza dakarten jarrerak.
- Pertsona bat isolatzeko eta bakartzeko agindua.
- Larritasun-maila bereko edozein.
- Zenbait hutsegite arinen batuketak hutsegite larritzat hartuko da.

HUTSEGITE OSO LARRIAK:

- Sexu-xantaia egitea, hau da, izaera sexuarekiko eskaerak egitea espediente akademikoan eragiteko, enplegua lortzeko edo enplegua mantentzeko.
- Eraso fisiko bat egitea.
- Jazarpen sexista egitea, hau da, lanean lardaskeriazko giroa, etsaitasunezkoa edo umiliagarria sortzea.
- Errepresaliak hartzea sexu-/genero-jazarpenak salatzen dituzten lagunen kontra edo jazarpenen ikerketetan parte hartzen, laguntzen edo lekukotasuna ematen duten lagunen kontra. Errepresaliak hartzea jokabide horiei aurre egiten dietenen aurka.
- Leku pribatuetan pertsonak ezkutuan behatzea; komunitetan edo aldageletan, esaterako.
- Larritasun-maila bereko edozein.
- Zenbait hutsegite larrien batuketak hutsegite oso larritzat hartuko da.

Baldintza astungarriak:

- Nagusitasun hierarkikoa erabiltzea sexu-/genero-jazarpenean.
- Jokabide iraingarria izaten jarraitzea protokoloa aktibatuta dagoen bitartean.
- Erasotzaileak maltzurkeria erabiltzea bere ukigabetsuna bermatzeko.
- Sexu-/genero-jazarpeneko aurrekariak izatea.

Baldintza aringarriak:

- Jazarpenik berriro gerta ez dadin sentsibilizazio, formazio edo bestelako ekintzetan parte hartzeko konpromisoa adieraztea.

ZEHAPENAK

ZEHAPENAK, proportzionaltasunaren printzipioaren eta graduazioaren arabera antolatuta, hauexek izango dira:

HUTSEGITE ARINAK:

- Ahozko ohartarazpena.
- Idatzizko ohartarazpena.
- Langileen kasuan, enplegua eta soldata etetea (gehienez, bi egunetan). Kaleratuz gero, Fakultateko zerbitzu guztiak etengo zaizkio.
- Ikasleen kasuan, behin-behineko kaleratzea (gehienez, astebete). Kaleratuz gero, Fakultateko zerbitzu guztiak etengo zaizkio.

HUTSEGITE LARRIAK:

- Behin-behinean lekuz aldatzea:
 - A) Kautelazko neurri moduan, prozedurak irauten duen bitartean.
 - B) Zehapen modura, gutxienez hilabeterako eta gehienez hiru hilabeterako.
- Enplegua eta soldata etetea, gutxienez hiru egunetan eta gehienez hamasei egunetan.
- Langileen kasuan, enplegua eta soldata etetea (gutxienez hiru egun eta gehienez hamasei egun). Kaleratuz gero, Fakultateko zerbitzu guztiak etengo zaizkio.
- Ikasleen kasuan, behin-behineko kaleratzea (gutxienez astebete eta gehienez ebaluazio-epe bat). Kaleratuz gero, Fakultateko zerbitzu guztiak etengo zaizkio.

HUTSEGITE OSO LARRIAK:

- Kargua galtzea, gutxienez sei hilabete eta egun batez eta gehienez behin betiko. Soldata egoera berrira ego-kituko da.
- Langileen kasuan, enplegua eta soldata etetea (gutxienez hamasei egun eta gehienez hirurogei egun). Kaleratuz gero, Fakultateko zerbitzu guztiak etengo zaizkio.
- Ikasleen kasuan, behin-behineko kaleratzea (gutxienez ebaluazio-epe bat eta gehienez ikasturte bat). Kaleratuz gero, Fakultateko zerbitzu guztiak etengo zaizkio.
- Behin-behinean lekuz aldatzea:
 - A) Kautelazko neurri moduan, prozedurak irauten duen bitartean.
 - B) Zehapen modura, gutxienez hiru hilabeterako eta gehienez urtebeterako.
- Behin betiko lekuz aldatzea.
- Kaleratzea.

Oharrak:

- Epai judiziala dagoenean, kontuan hartuko da epaia, eta berrikusi egingo da Fakultateak hartutako erabakia.
- Protokoloa ez ezagutzeak edo gaizki ulertzeak ez dio protokoloaren aplikazioari eragiten.
- Dagokion organoak erabaki dezake zehapenak aplikatzeaz gain lanorduez kanpoko prestakuntza ematea.
- Protokoloaren erabilera ez da oztopo izango bestelako babes judiziala baliatzeko.

INDARKERIA MATXISTA KASUETARAKO PROZEDURA FLUXUGRAMA

Campusetan, ikasketekin lotuta dauden jarduerak gauzatzeko diren espazio fisiko edo/eta birtualetan, Unibertsitateak antolatzen/ babesten dituen jardueretan. Langileak, ikasleak, fakultatearekin lan-harremana duten kanpo-erakundeak eta bisitariak.

- LGTBifobiak eragindako jazarpenak.
- Sexuan oinarritutako jazarpenak.
- Sexu-jazarpenak.
- LGTBifobiak eragindako erasoak.
- Sexuan oinarritutako erasoak.
- Sexu-erasoak.

Erasoa edo jazarpena pairatu baduzu, kexa edo salaketa bidali honako helbidera:
jazarpena.huhezi@mondragon.edu

KASUAREN ANALISIA (gehienez, 7 egunetan)

Protokoloan jasota ez dagoen adierazpenen batekin lotua badago gertaera, jakinaraziko zaizu zergatik ezin zaion kasuari erantzunik eman Batzorde honetan; halaber, batzordeak kasua itxiko du, edota dagokion arreta emateko eskumena duen instantziara bideratuko du.

Protokoloan jasota dagoen adierazpenen batekin lotua badago gertaera, protokoloa aktibatuko da eta prozeduraren tramitazioa abiaraziko da. Batzordeak beharrezkotzat joz gero, kasu horretan parte hartzen duten alderdiei kautela-neurriak ezartzea proposatuko du, prozedurak dirauen artean.

PROZEDURAREN TRAMITAZIOA (gehienez, 30 egunetan)

KEXA

Kontraste-prozesuan egiaztatzen bada kexa horrek egia-zantzuak dituela, kexa jarri diozun pertsonarekin bilera bat egin eta, kasua azaldu ostean, jakinaraziko zaio zer ondorio izango dituen aurrerantzean jarrera hori errepikatuz gero. Nahi izanez gero, parte hartu ahaliko duzu bilera horretan; kexa jarri zaion pertsonak, era berean, egokituz jotzen dituen azalpenak eman ahaliko ditu.

Prozesuko partaideetarikoren bat emaitzarekin ados ez bazaudete, salaketa-prozesua abaiaraztea erabaki dezakezue.

SALAKETA

Protokolo honetan jasota ez dagoen adierazpenen batekin lotua badago gertaera, jakinaraziko zaizu zergatik ezin zaion kasuari erantzunik eman Batzorde honetan; halaber, batzordeak kasua itxiko du, edota dagokion arreta emateko eskumena duen instantziara bideratuko du.

Fakultateko ikasle edo langileak tartean daudenean, Zuzendaritza Kontseilua arduratuko da kasua ebazteaz. Fakultateko bazkideak tartean daudenean, Kontseilu Errektorea arduratuko da kasua ebazteaz. Erabakiaren berri emango zaizue, idatziz, bai zuri, bai salatuari.

KASUA IXTEA



**Mondragon
Unibertsitatea**

Humanitate eta Hezkuntza
Zientzien Fakultatea